

**DEIALDIA, HAUTAPROBEN BIDEZ SAKANAKO MANKOMUNITATEKO  
BERDINTASUN TEKNIKARI LANPOSTUA ALDI BATERAKO BETETZEKO  
HAUTAGAI ZERRENDA OSATZEKO**

**1. Oinarria.- Arau orokorrak.**

1.1. Deialdi honen xedea da lehiaketa-oposizio bidez Sakanako Mankomunitatean berdintasun teknikari lanpostua betetzeko lan-poltsa bat eratzea, euskara C1 hizkuntza-eskakizuna duena, lanpostu-hutsak, laneko bajen ondorioz behin behineko ordezkapenak, oporrak eta mankomunitateko zerbitzuak indartzeko unean uneko beste edozein behar betetzea.

Enplegu-poltsa hau beste enplegu-poltsa bat sortu arte egongo da indarrean.

1.2. Deialdi hau egingo da Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezartzen denari jarraituz.

1.3. Lanpostua betetzeak lanpostuari, mailari eta kategoriari dagozkion eginkizunak betetzea dakar berarekin.

**2. oinarria. Izangaiei betebeharrak.**

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- Espainiako nazionalitatea, edo Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartutako estatu bateko nazionalitatea izatea, baldin eta abuztuaren 30eko 30 Legegintzako Foru Dekretuaren 251/1993.

artikuluaren ezarritakoaren arabera langileen eta haien senideen zirkulazio askea jasotzen badute.

- Adinez nagusia izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina ez gainditzea.
- Gradu unibertsitate-titulua, unibertsitate-diplomatura edo baliokidea izatea, edo titulu hori lortzeko eskubideak ordaindu izanaren ordezkagiria izatea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.
- Bete behar diren eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik berezia ez egotea. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek frogatu beharko dute ez dutela beren estatuko funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik.
- Europako Esparru Bateratuko C1 mailako (idatzi eta ahozkoa) euskara-titulua edo baliokidea izatea.
- B motako gidabaimena.
- Enplegu Bulegoan lan-eskatzailerik gisa inskribaturik egotea.

2.2. Aurreko betekizun horiek agiri bidez egiaztatuko beharko dituzte izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

### **3. oinarria. Eskabideak.**

3.1. Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoarekin bat, aldi baterako langileak hautatzeko prozeduretan, bilatuko da kontratazioa ahalik eta arintasun handienarekin egitea.

Lanpostu hori betetzea presakotzat ematen dugunez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Altsasuko enplegu bulegoari enplegu-eskaintza bat egiteko eskatuko zaio, enplegu-eskatzailerik edo enplegu-hobekuntzarako daudenei zuzenduta, betiere deialdiko 2. oinarriko baldintzak betetzen badituzte.

Nolanahi ere, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskubidea izango dute, horretarako baldintzak betez gero, eta nahiz eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Altsasuko Enplegu Bulegotik deituak izan ez, instantziarekin batera enplegu-eskatzaile gisa eskabidea egin dutela kreditatzen duen agiria aurkezten duten izangaiek, betiere 2. oinarrian ezarritakoari jarraikiz.

3.2. Izangaiek dagokion eskabidea aurkeztu beharko dute **Sakanako Mankomunitateko bulegoetan** (Uriz kalea 32, Lakuntza), deialdi honen I. eranskinean ageri den ereduaren arabera, **2024ko maiatzaren 10eko 14:00ak baino lehen**, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39-2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako bat erabiliz; kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu izana frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute ezarritako epea baino lehen posta elektronikoko helbide honetan: [idazkaria@sakana-mank.eus](mailto:idazkaria@sakana-mank.eus).

Mankomunitatearen egoitza elektronikorako sarbidea honako hau da: <https://sedeelectronica.sakana-mank.com/es/index.aspx>;

Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian egingen da, postako langileek data eta zigilua jar ditzaten, ziurtatu aurretik, eta horren berri emango zaio entitate honi gorago adierazitako helbidera mezu elektronikoko bat igorritz.

Eskabideak argitaratutako eskabide ereduaren arabera egin beharko dira, eta, bertan, izangaiek eskatzen zaizkien baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

3.3. Eskabidea behar bezala beteta aurkeztu beharko da. Harekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) NANaren edo hautagaiaren nortasun edo nazionalitatea egiaztatzen duen agiriaren fotokopia eta, hala badagokio, 2.1. oinarrian eskatutako gainerako baldintzena.
- b) B motako gidabaimenaren fotokopia.

- c) Deialdian eskatutako tituluaren fotokopia, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.
- d) Titulazio akademikoa.
- e) Eskatutako euskara-mailaren titulazioa.
- f) Enplegu Agentzia batean enplegu-eskatzaile gisa edo lana hobetzeko erregistroan inskribaturik egotearen ziurtagiria.
- g) Merezimenduak, lehiaketaldirako.

3.4. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da.

3.5. Baldintza horiek agiri bidez frogatu beharko dituzte hautatu eta kontratatzen diren izangaiek, kontratuak sinatu aurretik horretarako ezartzen zaien unean.

#### **4. oinarria.- Zerrenden onarpena, hautagaiak eta erreklamazioak.**

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Sakanako Mankomunitateko lehendakariak ebazpena emango du onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko eta Mankomunitateko iragarki-oholean eta web orrian ([www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus)) argitaratzeko aginduko.

4.2. Baztertutako izangaiek erreklamazioak egin eta, hala badagokio, akatsak zuzendu ahal izango dituzte, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo 3 egun baliodunen barruan.

4.3. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, Sakanako Mankomunitateko lehendakariak onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzeko ebazpena emango du, eta zerrenda udal-taulan eta [sakana-mank.eus](http://sakana-mank.eus) webgunean argitaratzeko aginduko du. Ebazpen horretan, oposizio-ariketak hasteko eguna, tokia eta ordua adieraziko dira.

4.4. Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtu ahal izango da berehala, izangaien bazterketarik gertatzen ez bada.

4.5. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendetan agertzeak ez du esan nahi interesdunei deialdian eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Izangaiek aurkeztu beharreko dokumentazioa edo Administrazioaren esku dauden baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, interesdun horrek deialdian parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galdu egingo ditu.

4.6. Euskararen ezagutza agiri bidez egiaztatu ez duten izangaiek egin beharreko proba onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratu ondoren egingo da, hautaketa-prozesuari hasiera eman aurretik. Horretarako, 4.3 atalean adierazitako ebazpenean, proba egiteko eguna, ordua eta lekua adieraziko dira.

## **5. Oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.**

5.1. Kide hauek izango dira epaimahaiko kideak:

-Lehendakaria: Aitor Larraza Carrera, Sakanako Mankomunitateko lehendakaria.  
Ordezkoa: Oihana Olaberria Jaka, Sakanako Mankomunitateko lehendakariordea.

-Mahaikidea: Maria Balda Galán, Sakanako Mankomunitateko kudeatzailea. Ordezkoa: Iker Manterola Matxain, Sakanako Garapen Agentziako kudeatzailea.

-Mahaikidea: Oihana Gallo San Román, Sakanako Mankomunitateko berdintasun-  
teknikaria. Ordezkoa: Titularrak izendatzen duena.

-Mahaikidea: Nerea Malkorra Araolaza, Sakanako Mankomunitateko kontu-hartzailea.  
Ordezkoa: Titularrak izendatzen duena.

-Mahaikide-idazkaria: Urtzi Nazabal Goñi, Sakanako Mankomunitateko idazkaria.  
Ordezkoa: Mankomunitateko udal bateko idazkaria.

5.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

5.3. Epaimahaia eratu eta haren jarduketak balioa izateko, kide guztien erabateko gehiengoa bildurik izan beharko da. Kide anitzeko organoa balio osoz eratzeko eta jarduteko, lehendakaria eta bokal-idazkaria bertan egotea, edo, bestela, haien ordezkioak bertan egotea beharrezkoa izango da.

5.4. Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezin izango dute parte hartu, eta deialdia egin duen organoari jakinarazi beharko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-arrazoiak daudenean. Halaber, izangaiek, aipatu gorabeherak suertatuz gero, epaimahaikideak errefusatu ahalko dituzte.

Legez ezarritako abstentzio- eta ezespren-arrazoiak aplikatzeagatik epaimahaiaren osaeran aldaketaren bat gertatzen bada, epaimahai berriaren osaketa argitara emango da onartutako eta baztertutako izangaien zerrendekin batera.

5.5. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

## **6. oinarria.- Hautaketa prozesuaren gauzatzea.**

### 6.1. Oposizioaldia:

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean, oposizioko probak non, noiz eta zer ordutan egingo diren zehaztuko da. Ebazpena mankomunitatearen web-gunean eta iragarki-oholean argitaratuko da.

Oposizio-probaren deialdia, bai eta proba horiek osatzen dituzten ariketa bakoitzarena ere, deialdi bakarraren bidez egingo da, eta izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte, gidabaimena edo Nafarroan baliozkotasuna duen baliokidea eraman beharko dute. Oposiziotik kanpo geratuko dira iragarritako data, ordu eta lekuetan agertzen ez diren edo aipatutako dokumenturen baten bidez identifikatzen ez diren izangaiek.

### 6.1.2 Ariketak:

#### Proba teoriko-praktikoa:

Oposizio-fasea proba teoriko-praktiko bakar baten bidez garatuko da. Proba teoriko horretan, deialdi honen II. eranskinean agertzen den gai-zerrendako gaiei buruzko galdera-sorta bati erantzun beharko zaio idatziz. Galdera-sorta horrek gehienez 40 galdera izango ditu, test motakoak, eta galdera bakoitzari erantzuteko aukera bat baino ez. Aukera horietatik bakarra izango da baliozkoa. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.

Atal honetako gehieneko puntuazioa 70 puntu dira. Baztertuta geldituko dira ariketan gutxienez 35 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

6.1.3. Oposizioa amaitu eta gehienez ere bi egun balioduneko epean, Sakanako Mankomunitateko iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da izangai bakoitzak lortutako puntuazioa.

#### Lehiaketaldia:

Bakarrik baloratuko da oposizio-fasean (proba teoriko-praktikoa) 35 puntu lortu dituzten pertsonen esperientzia. Gehienez 30 puntu emango dira, baremo honen arabera, eta ez dira baztertzailleak izango:

a. Laneko esperientzia (20 puntu gehienez).

I. Administrazio Publikoko berdintasun-teknikari lanpostuetan lan egindako urte bakoitzeko: 4 puntu lan egindako puntu bakoitzeko.

ii. Entitate pribatuetan berdinasun-teknikari gisa lan egindako urte bakoitzeko: 2 puntu lan egindako puntu bakoitzeko.

Urteen kopurua osoa ez bada, izangaiei emango zaie zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa.

Aurreikusitako merezimenduak zenbatzeko, zerbitzuak eman diren administrazio publikoek emandako ziurtagiriak aurkeztuko dira.

b. Prestakuntza osagarria eta ikastaroak (10 puntu gehienez).

Unibertsitateko graduondoko ikasketa bukatuak, berdintasunerako teknikariari buruzkoak. 2 puntu emango da 200 orduko, eta 8 puntu gehienez. Ez da baloratuko 200 ordu baino gutxiagoko ikasketarik. Gutxieneko formazio hori gainditurik, 200 orduetik beherako zatiei esleituko zaie dagokien puntuazio proportzionala.

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan amaitutako ikastaroak. 10 orduko 0,1 puntu emango dira (gehienez 2 puntu).

6.3. Lehiaketaren kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak Sakanako Mankomunitateko iragarki oholean eta webgunean argitaratuko ditu lortutako guztizko kalifikazioekin gainditutako pertsonen zerrenda eta ordezkapen-poltsa osatuko duen puntuazio-hurrenkera korrelatiboa.

Azken kalifikazioa oposizio-faseko ariketen puntuazioen batuketaren emaitza izango da, betiere izangaia kanporatuta geratu ez bada.

## **7. oinarria.- Gaindituen zerrenda eta ordezkapen poltsaren funtzionamendua.**

7.1. Lehendakaritzaren ebazpen bidez, Mankomunitateko iragarki-taulan argitaratuko da hautatuak izan diren izangaien behin betiko zerrenda.

7.2. Zerrendetan, probetan lortutako puntuaziorik handienaren arabera ezarriko da lehentasuna. Berdinketa egonez gero, zozketa bidez ebatziko da.

7.3. Oposizioaldian gutxienez 30 puntu lortzen duten pertsona guztiak sartuko dira aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendetan.



7.4. Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuan premiaren bat gertatuz gero, izangaiei dei egingo zaie.

Beharra sortzen den unean (baja, edo absentzia, lanpostua gordetzeko eskubidearekin, edo lanpostu huts berria) hautatutako izangaien zerrendan eskuragarri daudenen artean lehenbizikoari deituko zaio.

7.5. Dagokion izangaiari deitu ondoren, berehalakoan esan beharko du baietz, eta orduan aldi baterako kontratatuko da, gidari-peoi lanposturako, kontratazioa ekarri duen egoerak iraun bitartean, edo plaza erregelamenduz bete arte.

7.6. Deialdia aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onartzen dituen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduaren arabera egingo da (2011ko otsailaren 15eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

7.7. Kontratatzen diren izangaiek behar diren ordainsariak jasoko dituzte, plantilla organikoan ezarritakoaren arabera lanpostuari dagozkionak.

Kontratuak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean afiliatuko dira eta hartan alta hartuko dute, araubide horretan aurreikusten den babesaren pean.

7.8. Kontratua indarrean den bitartean justifikatuki uko eginez gero, uko egileak duen puntuazioaren arabera hartuko du zerrendan dagokion tokia.

Uko egiten den gainerako kasuetan, une horretan zerrendako lehenbiziko tokian dagoen izangaiari deituko zaio, eta uko egileari baja emanen zaio hautatutakoen zerrendan.

7.9. Deialdi honen babespean egiten diren lan kontratuak probaldi bat izanen dute, Langileen Estatutuarekin bat.

Halaber, egiten diren kontratuen indarraldian langilea kanporatzen bada indarreko lan-araudian ezarritako arrazoiengatik, automatikoki baja emanen zaio zerrendan.

### **8. oinarria.- Errekurtsoak.**

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtso hauetakoren bat aurkezten ahalko da:

- Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsoak xede duen egintza jakinarazi edo argitaratzen den hurrengo hilabetetik kontatuta.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, bi hilabeteko epean, argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

### **9. oinarria.- Datuen babesa. Datuen tratamenduaren arduraduna**

- a) Datuen tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitateko idazkaritza.
- b) Datuak babesteko ordezkaria: idazkaria@sakana-mank.eus
- c) Xedea: enplegu deialdiak kudeatzea, betiere botere publikoen jarduna gauzatzeko.
- d) Oinarri juridikoak: Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorraren 6.1.c artikulua: "Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legeko betebeharrak betetzeko" (251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena).

- e) Datuak gordeko diren denbora: datuak adierazitako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, eta Mankomunitateak tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak izan ditzakeen bitartean biltegiatuko dira. Era berean, Artxibo eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio-arauak bete behar dira.
- f) Datuen hartzaileak: Indarreko legedia betez, datuak epaile eta epaimahaiei laga ahal izango zaizkie, eta Udalaren web-orrian, egoitza elektronikoan eta iragarki-taulan argitaratuko dira, deialdian adierazitakoari jarraikiz.
- g) Eskubideak: interesdunek eskubidea dute beren datuak ikusteko, akatsik baldin badago haiek zuzentzeko, bai eta, Mankomunitateko udal bulegoetara joz, haiek ezabatzeko ere.
- h) Era berean, interesdunek erreklamazioa aurkeztu dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, idazki bat bidaliz (Jorge Juan, 6, 28001 (Madrid)) edo egoitza elektronikoaren bidez ([www.agpd.es](http://www.agpd.es)).
- i) Informazio gehiago: Mankomunitatearen web-orriaren pribatutasun politika.

Lakuntzan, 2024ko apirilaren 23a. Lehendakaria, Aitor Larraza Carrera

## **I. ERANSKINA**

### **INSTANTZIA EREDUA**

Izena: ....., adinez nagusia. Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia: ..... Sorteguna: .....  
Sorlekua ..... Bizilekua: ..... (.....). Kalea: ..... Zenbakia:..... Posta kodea: .....  
Telefonoa: ..... (.....) bizilekua (herria):....., zenbakia:  
.....jaioteguna:.....helbidea:.....kalea:  
.....zenbakia:.....telefonoa:..... zure aurrera agertu eta  
adierazten dut:

✓ Onartua izatea eskatzen dudala hautaprobeen bidez Sakanako Mankomunitateko berdintasun-teknikari lanpostua aldi baterako betetzeko hautagai zerrenda osatzeko. Lanpostuak C1 euskara hizkuntza eskakizuna du.

✓ Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.

✓ Ez dudala indarrean dauden xedapenetan ezarritako ezintasunik.

✓ Ez naizela diziplinazko espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

✓ Badudala deialdian eskatzen den titulazioa.

✓ Betetzen ditudala deialdian eskatzen diren baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako.

Euskara proba egitea eskatzen dudala.

✓ Eskabideari agiri hauen fotokopiak erantsi dizkiodala:

○ Nortasun agiri nazionala.

○ Eskatzen den titulazio akademikoa eta euskara titulua.

○ B motako gidabaimena.

○ Merezimenduak, lehiaketaldirako.

○ Langabezia-txartelaren edo lana hobetzeko txartelaren kopia.

Desgaitasuna dudala frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana (hala badagokio).

Azaldutakoagatik, honako hau ESKATZEN DUT:

Eskatzen dut onartua izatea Sakanako Mankomunitateko berdintasun-teknikari lanpostua aldi baterako betetzeko deialdian.

Lakuntzan, .....(e)ko, .....(a)ren.....(e)an.

(sinadura)

**DATUEN BABESA. Tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitatea Xedea: Langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpostua betetzea. Eskubideak: Datuetan sartzeko, haiek zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak, baita beste hainbat eskubide ere.**

## **II. ERANSKINA**

### **Gai zerrenda**

- 1.- Sakanako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana 2020-2023 (Sakanako Mankomunitatearen webgunean eskuragarri).
  - 2.- Sakanako Mankomunitatearen komunikazio inklusibo eta ez-sexistarako ordenantza, 2024ko martxoaren 5eko NAO n argitaratua.
  - 3.- Sakanan emakumeen aurkako indarkeriaren arretan koordinatzeko Lurralde Protokoloa.
  - 4.- Berdintasun-printzipioa giza eskubideen nazioarteko itunetan. Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW).
  - 5.- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako.
  - 6.- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-Indarkeriaren aurka Oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa.
  - 7.- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.
  - 8.- 14/2015 Foru Legea, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa.
  - 9.- 8/2017 Foru Legea, ekainaren 19koa, LGTBI pertsonen gizarte-berdintasunerakoa.
  - 10.- Genero-berdintasuna Nafarroako toki entitateetan. Udaleko berdintasun-arloetako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea.
  - 11.- 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10koa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa.
  - 12.- Nafarroako Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Erakunde arteko
- III. Akordioa. Nafarroako egoera eta dauden baliabideak.